



Batel estropada antolatu du TAKek

TOLOSA ▶ Gipuzkoako ligaxkan ariko diren hamar batel lehiatuko dira bihar, Zerkausitik Zubi Berrira

DENBORALDIA ▶ Tolosaldeko Arraun Klubaren aurkezpena egin dute, eta egitasmoak aurkeztu ▶ 2



Sailkapen faseko partida bat. n. l.

TOLOSA ▶

Shanti futbito txapelketako finalak bihar, Usabalen

10:00etan hasita, lau partida izango dira ikusgai; 67 talde aritu dira aurten lehiatzen ▶ 3

TOLOSALDEA ▶

Hausnarketa prozesua martxan du AHT Gelditu! Elkarlanak

Astelehenerako batzarrera deitu du taldeak, Tolosako Kultur Etxean ▶ 3



JON URBE / ARGAZKI PRESS

Juan Garmendia Larrañaga solaskide

TOLOSA ▶ Etnografo eta historialari tolosarra haren bizitzaz, iraganaz, herri usadioz eta ospakizunez aritu da, besteak beste ▶ 6-7

TOLOSA ▶ ESTROPADAK



10 batel ariko dira bihar lehian Oria ibaian, 11:30etik aurrera. HITZA

Gipuzkoako ligaxkan ariko diren 10 batel lehiatuko dira bihar

Oria ibaian, Zerkausi paretik Zubi Berrira bitarteko eremuan izango da estropada saioa, 11:30ean hasita

IÑIGO TERRADILLOS

Batel estropada saioa izango da bihar Tolosako Oria Ibaian Zerkausi paretik Zubi Berrira bitarteko eremuan. 11:30ean hasiko da proba, eta Gipuzkoako ligaxkan parte hartuko duten 10 batel ariko dira lehian.

Hain zuzen ere, herenegun egin zen TAKen, Tolosaldeko Arraun Klubaren aurkezpen ekitaldia. Sabino Alijostes TAKEko presidentea, Anjel Larrañaga TAKEko teknikoa, Iñaki

Cruz TAKEko idazkaria, Igor Lertxundi Orio Arraun Elkarteko presidentea eta Oihane Mateos Orio Arraun Elkarteko idazkaria izan ziren aurkezpenaren hizlarien mahaiean. Udaltzeko batzar aretoan egin zuten agerraldia, eta jende ugari elkartu zen. Besteen artean, bertan izan ziren Jokin Bildarratz Tolosako alkatea eta Jose Julian Olasagasti Orio Arraun Elkarteko presidentea ohia.

Ekitaldian 10 batelen aurkezpena egiteaz gain, arraun

klubaren sorrera, bere lehenengo pausok eta ibilbidea erakusten duen ikus-entzunezkoa ikusteko aukera izan zuten. Halaber, aurrera begira dituzten helburuak zehaztu zituzten klubeko arduradunak; horien artean, Zerkausiaren behealdean jarri nahi dituzten arraun instalakuntza berrien proiektua azaldu zieten ekitaldian bildu zirenei.

Euskadiko Arraun Federazioaren barruan dago Tolosaldeko Arraun Kluba, eta honen

BATELAK ▶

Bihar, 11:30ean hasita, eta Oria ibaian, Zerkausi paretik Zubi Berrira bitarteko eremuan, izango da batel estropada saioa. Gipuzkoako ligaxkan parte hartuko duten ondorengo 10 batel ariko dira lehian:

PARTE-HARTZAILEAK

Infantil-kadete neskek.

2 batel; babeslea: Aralar Kirolak.

Jubenil-senior neskek.

2 batel; babeslea: Alde Zaharreko Ostalaritza Elkartea.

Infantil mutilak. 2 batel; babeslea: Igarondo Hiri Komertziala.

Kadete mutilak. Batel 1; babeslea: Belca.

Jubenil mutilak. 2 batel; babeslea: Apatxa aroztegia.

Senior mutilak. Batel 1; babeslea: Otegi eraikuntzak.

LAGUNTZAILEAK

- ▶ Zelai (karbono zuntzeko batela eta arraun joko berriak).
- ▶ Junkers (batelak garraiatu ahal izateko atoiak).
- ▶ Aralar Kirolak (klubaren izena daramaten 500 kamiseta eta txapelak).
- ▶ Gurutze karrozeria.
- ▶ Almesa.
- ▶ Climaxvic.
- ▶ Ibarra Udal.
- ▶ Gazteluko Udal.
- ▶ Tolosako Udal.
- ▶ Orio Arraun elkartea.
- ▶ Trintxerpe-Ilunbe.

bestez baita arraunlariak ere. Hala, aurtengo denboraldian TAKEko 10 batel ariko dira Gipuzkoako ligaxketan lehiatzen, infantil-kadete nesken 2 batel, jubeniil-senior nesken 2, infantil mutilen 2, kadete mutilen 1, jubeniil mutilen 2 eta senior mutilen 1. Horiexek izango dira bihar lehian ariko direnak.

Tolosan berriz ere berpizten ari den kirol honen beste hitzordu garrantzitsu bat izango da, beraz, bihar, 11:30etik aurrera.

IBARRA ▶

Bizi Nahi elkartearen batzarra, bihar

2005eko kontuak eta zuzendaritza taldearen berrikuntza landuko dituzte

I. TERRADILLOS

Ibarra Bizi Nahi jubilatua eta pentsiodunen elkarteak jakinarazi du bihar goizean urteko batzarra egingo dutela. Batzarra elkartearen bertan egingo dute, 11:00etan hasita, eta aurreko aktaren irakurketa eta onarpena, 2005eko kontuak eta zuzendaritza taldearen berrikuntza partziala izango dira, besteak beste, jorratuko dituzten gaiak.

Duen garrantzia dela-eta bazkide guztiei bertaratzeko deia egin diete. Halaber, elkartera joaten diren guztientzat hamaiketako prestaturiko dutela azaldu dute.

TOLOSA ▶

Gaur itxiko ditu atek Merkatu Txikiak

ERREDAKZIOA

Laskorain ikastolak antolatutako hamargarren Merkatu Txikiak gaur itxiko ditu atek. Hori dela-eta antolatzaileek salneurri bereziak jarriko dituzte; liburuak, oinetakoak eta arropa, adibidez, euro baten truke erosi ahal izango dira, eta berokiak hiru eurotan. 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

KIROLA ▶

Bihar jokatuko dituzte Shanti txapelketako finalak Usabalen

Parte-hartze handia, jokoan erakutsitako maila eta taldeen arteko elkartasuna eta giroa, aurten azpimarratzekoak



Shanti Torneoako final-haurdenetako partida baten irudia. NOELIA LATABURU

NEREA URBIZU

Gabonetan ohiko hitzordu bilakatu den Shanti Torneoa amaierara iritsi da dagoeneko. Ostegunean txapelketako maila ezberdinetan hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeke norgehiagokak jokatu zituzten. Eta bihar goizean izango dira finalak, Usabalen.

Hain zuzen ere, Tolosako taldeez gain, inguruko herrietako gaztetxoek osatutako 67 taldeen artean, azken txanpa honetara ailegatu direnak hauek dira: nesketan, bi partida izango dira ikusgai. Lehenik, 10:00etan, Deabruak taldea Zumadiren kontra lehiatuko da. Ondoren, 10:45ean, Tigre Txikiak eta Oyarzabal taldeak izango dira aurrez aurre.

Mutiletan ere bi final jokatuko dira bihar. Lehenik, 11:30ean, Perus-ek Shanti Kirolak taldearen kontra jokatu du. Partida hori amaituta, 12:15ean, izango da ikusgai txapelketaren azken finala: Lurrikarak eta Tigre Txikiak lehiatuko dira, hain zuzen ere.

Dagoeneko 24 urte bete ditu Shanti futbito txapelketak, eta urtetik urtera gero eta talde gehiagok ematen du izena. Aurtengoa ere «arrakasta-

FINALAK ▶

Shanti txapelketako lau final izango dira bihar jokoan Usabal kirol eta aisialdi gunean:

10:00. Deabruak / Zumadi.

10:45. Tigre Txikiak / Oyarzabal.

11:30. Perus / Shanti Kirolak.

12:15. Lurrikarak / Tigre Txikiak.

tsua» izan dela diote antolatzaleek. Hain zuzen ere, inoizko parte-hartzerik handiena izan du txapelketak; Tolosaldeko neska-mutilen 67 talde lehiatu dira egunero Usabal ki-

roldegi berrian, bost mailatan banatuta: infantil mutilak, alebin mutilak, benjamin mutilak, infantil neskek eta alebin neskek.

Maila eta giro ona

Partaidetza handiarekin batera, jokoan erakutsitako maila ona ere azpimarratzekoa izan da aurtengo edizioan. Gainera, ez da liskarrik sortu jokalarien artean; torneo honetako antolatzaleek seriotzat hartzen duten helburua da aipatutako hauxe, kirolzaletasuna bultzatzea.

Giro ezin hobea izan da Usabalen, eta ikusle asko eta asko elkartu da gaztetxo hauen joko jarraitzaera.

iragarki laburrak ▶

Laborategia. Plaza libreak: teknikariak, ikertegiko laguntzaileak, Eusko Jaurlaritza. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Ohar garrantzitsua. Urritasun fisikoren bat baldin baduzu, lor ezazu lanpostu finkoa. %5 erreserbatua. Informazioa doan: 943 31 37 82.

Peoiki. Obrak, gidariak, zabor

biltzaileak, garbitzaileak.

Udaletxetarako. 943 31 37 82.

Gidariak. Hurrengo lanpostuak Foru Aldundirako. Kontratu mugagabea. 943 31 37 82.

Suhiltzaileak, udaltzaingoa. Plaza libreak udaletxetarako.

Informazioa doan. 943 31 37 82.

Garbitzaileak. Lanpostu finkoak: eraikin publikoak, ikastetxeak,

erietxeak. Astelehenerik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.

Informa zaitze. 943 31 37 82.

Presazkoa. Haur zaintzaileak eta haur eskoletarako hezitzaileak behar dira. 943 31 37 82.

Administrari laguntzaileak. Plaza libreak udaletxetarako. 1.200 euro. Lanaldia: astelehenerik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.

AHT ▶

Hausnarketa prozesua hasi du Elkarlanak

Hilaren 28an Alegian egingo duten bileran amaituko da; astelehenean, batzarra Tolosan

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak «gogorki salatu» du Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak Abiadura Handiko Trena («inposatu asmoz») lortu duten akordioa obren gestioa eta negoziatioa banatzeko. «Onartezina iruditzen zaigu Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak urrats erabakigarriak eman nahi izatea inposaketa eta txikizioa burutzeko», diote. Madrilgo aurrekontuen negoziatioa aitziakiaz hartuz, PNV-k eta PSOE-k euren interesen alde egin nahi dutela diote, euskal gizartearen gehiengoaren interesen gainetik. «Gainera, aurretik, EAEko hauteskunde berriak apirilean burutu ondoren sinatutako legealdi hitzarmenarekin PNVk bere hiruko gobernuko bazkide diren EA eta EB motzean lotzen ditu AHTren proiektuari atek irekitzeko asmoz. Orduan, AHT Gelditu! Elkarlanak gogor kritikatu zuen EBren jarraera otzana eta klaukikan-tea». Era berean, Nafarroako Gobernuaren «politika inposatzaile bera» ere salatu du; «izan ere, orain arte burututako gestioak sakondu egin nahi ditu, AHT lehenbailehen herrialdera eramateko». Lehengo asteazkenean EAE eta NFKko Garraio sailburu Nuria Lopez de Gereñuk eta Alvaro Mirandak burutu zuten bilera atera dituzten ondorioak kontuan izanik, Elkarlanekoek diote administrazio autonomiko hauek argi erakusten dutela bi inposaketa, eta lurraldearen suntsiketaren aldeko apustua egiten jarraitzen dutela».

Gauzak honela, Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak «argi eta garbi» utzi nahi du orain arte «ez dela inongo dinamika

partehartzailerik ezta eztabaidarik burutu euskal gizartearen AHTren inguruan».

Hala ere, Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanetik balantze positiboa egiten du AHTren aurkako mugimenduak aurtun garatu duten dinamikaren inguruan. «Oztopo guztien gainetik, gure jardura eta erantzun ahalmena biderkatzeko gai izan gara». Bestek beste, mobilizazioa indartu dute, informazioa zabaltu edota harreman berriak burutu. «Azpimarratzekoak dira urtarilla-otsailean burutu gure Herri Herri AHTrik ez, inposaketarik ez! dinamika edota Gasteizen antolatutako Aldarrikapen Gunea, beste ekintza askoren artean». Arlo juridikoan, berriz, «defentsarik gabe» gelditzen ari direla diote, «botere judiziala botere politikoaren menpe jartzen ari baita».

Azkenik, AHT Gelditu! Elkarlanetik «borondate sendoa» erakutsi nahi dute orain arte eraman duten bidea indartzeko eta eraginkorragoa egiteko, «AHT proiektua gelditu arte». Azken aste hauetan hausnarketa hasi dute, eskualdez eskualde, erakunde erakunde, AHTren aurkako mugimendua gehiago indartzeko. Hausnarketa hau hilaren 28an Alegian burutuko duten bileran amaituko da.

Hau dela eta, deialdi berezia egin nahi dute «AHTren aurka dauden inguruko herritar, sektore sozial, sindikal nahiz politikoei une garrantzitsu hau aprobetxatuz», honela indarrak biltzeko eta harremanak areagotzeko. Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak batzarrerara deitu du astelehenerako, hilak 9, Tolosako Kultur Etxean, 20:00etan.

AHOLKULARITZA KONTRATAZIOA

Bi Udaltalde 21etan Agenda 21 garatzeko

Oinarriak
TOLOMENDIko
bulegoetan

Nafarroa Etorbidea 6,
Tolosa

Epea: 15 egun

I. MARRAZKI LEHIAKETA >

Amezketeta, Ikaztegieta eta Tolosa

Leire, Iraia, Jokin, Ugaitz, Sara, Maria, Ander, Leire, Oihan, Garazi, Mattin, Beñat, Markel, Jon, Mikel, Uxer, Jokin, Xabi eta Nerea ere animatu dira beren marrazkia ekartzera; hauek haiek egindakoak



Leire Bengoetxea Otegi (11 urte, Tolosa). Hauxe kontatu digu gure lagun Leirek Hitzara ekarritako marrazkiaren atzealdea: «Niri gustatuko litzaidake Tolosan ilunabar poltikak egotea».



Iraia Labaka Vela (11 urte, Tolosa). Gure beste lagunbo iraiak ere badu desiorik bere herriari buruz. Hauxe dio egindako marrazkian: «Niri gustatuko litzaidake mendi gutxieta jaiotzak egotea».



Jokin Lakunza (4 urte, Ikaztegieta). «Kaixo, ni Jokin naiz, ikaztegieta bai naiz eta 4 urte ditut. Oientzero oso burbu portatu da nirekin, ezpata bat ekarri dit».




Ugaitz Mozo (3 urte, Ikaztegieta). «Nii Ugaitz naiz eta 3 urte ditut. Etsen pinu handi bat dut eta Oientzerok motzerra ekarri dit».



Sara Urkola (4 urte, Ikaztegieta). «Kaixo, ni Sara naiz eta 4 urte ditut. Oientzerok hiru opari ekarri dicit, baina bat bakia gelditu zait. Marrazki poltikak egiten ditub».



Maria Jauregi (8 urte, Tolosa). Maria Jauregi 8 urteko tolosarrak bere herriko biogegria aukeratu du egin duen marrazkirako; hain zuzen ere, Nafarroa etorbidea zeharkatzen duen bidetegiri zaita marraztu du.



Ander Larrarte Telleria (9 urte, Tolosa). Uzturreko irudia jaso du Anderrek bere marrazkian. «Uzturuen elurreko papirnak egitea gustatzen zait», dio 9 urteko gure lagun tolosarrak.



Leire Parra (5 urte, Ikaztegieta). «Kaixo, ni Leire naiz eta 5 urte ditut. Oientzero elurretan marraztu dut. Izarra eta pinua ere egin ditub», dio gure lagun Leirek Hitzara ekarritako marrazkian.



Oihan Parra (3 urte, Ikaztegieta). «Kaixo, ni Oihan naiz eta 3 urte ditut. Oientzerok eta Papa Noelek ekarri ditzokiate opariak».



Garazi Urkola (3 urte, Ikaztegieta). «Oientzero nire ebera etorri zen; oso polita zen Oientzero. Moviola arrosa ekarri dit».



Mattin Lakunza (5 urte, Ikaztegieta). Oientzero, elurra, zuhaitzak... Gabonak marraztu ditub gure lagun Mattinek.




Beñat Urkola (6 urte, Ikaztegieta). Eskola, Oientzero, zuhaitza... marraztu ditub.



Markel Irastorza (3 urte, Ikaztegieta). «Kaixo! Oientzero nire ebera ere etorri da. Otsok aski gustatzen zaizkit».



Jon Luzuriaga (7 urte, Ikaztegieta). «MP3a eta ordenadorea ekarri dit Oientzerok».



Mikel Luzuriaga (9 urte, Ikaztegieta). «Oientzero nekatu da, pipa erretzen».




Uxer Mozo (7 urte, Ikaztegieta). «Uxer naiz eta 7 urte ditut. Oientzerok opari asko ekarri dicit oporetan polasteko eta saskibaloian ibiliko naiz».



Jokin Tolosa (10 urte, Amezketeta). «Eiza, eta arbola apañdunik, jaiotza, Oientzero, familia... Bai poltik Gabonak!».



Xabi Luzuriaga (7 urte, Ikaztegieta). Ikaztegieta bere lagunak egin duten bezala, Xabik ere Gabonak marraztu ditu. «Oientzerok ordenadorea ekarri dit», kontatu digu, gainera.



Nerea Martinez Jauregi (7 urte, Tolosa). «Niri gustatzen zait Oientzero Tolosara etortzea oparirik», dio Nereak.

JUAN GARMENDIA LARRAÑAGA ▶ ETNOGRAFOA



«Bizitzan,
ezertan ez
naiz izan
ortodoxoa»

JON URBE / ARGAZKI PRESS

Tolosan 1926an jaioa, etnografoa eta historialaria. Hamaika herri usadio, ospakizun eta mitoren sustraiak aztertu eta liburutan eman ditu. Baita Gabon hauetan hainbat eta hainbat etxetan izan den Olentzerorenak ere

AMAGOIA IBAN - BERRIA

Tolosako tren geltokitik gertu bizi da Juan Garmendia Larrañaga. Ezkaratzeko txirrina jo eta emakume baten ahotsak erantzun du interfonotik. Etxeko langilea da. «Igo, bai». Epel dago etxea. Ehunka libururen estalitako pareta artean hartu gaitu, bere bulegoan. **Zure gurasoek gozotegi bat zeukaten Tolosa erdian. Zure haurtzaroa gozoa izan zela esango al zenuke?**

Bai. Ezin naiz kexatu. Seme bakarra izan naiz ia-ia. Bi anaia-arreba izan nituen, baina mutila ni baino lehenago jaio eta

handik sei egunera hil zen, eta neska ere ez nuen ezagutu. Gure etxean txokolata-eta egiten ziren, baina kandela denda ere bazen. Tamaina guztietako kandelak, argizaria eta halakoak egiten aritu ziren aita, aitaren osaba eta osabaren aurrekoak.

Zergatik ez zenuen zeuk ere aitaren argizarigile ofizioa ikasi?

13 urterekin kolegiara joan nintzen, Oronozera [Nafarroa]. Gero soldadutza eta horrela. Soldadutza Donostian egin nuen. Oso militar onak tokatu zitzaizkidan. Hiru urte primeran eman nituen. Oronozko maristei buruz ez dut ondo hitz egiten, baina militar haiei buruz bai.

Zergatik ez zenuen atsegin Oronozko maristetako giroa? Diziiplina bat bazuten... Igande eguerdietan gutunak idatzi behar zenituen, eta ni ez naiz gutunak idaztekoa. Oso irakasle onak ziren, baina diziiplina hura, niretzat... Ez naiz behin ere izan oso diziplinatua. Anar-

ko samarra izan naiz nire gauzetan. Nire lanean fuerte ematen diot, baina lanean ere baktaria naiz. Joxemiel Barandiaranek esan zidan behin Etniker sortzera zihoala, eta ni hor sartzea nahi zuela. Ezetz esan nion, ez nintzela taldeko lana egitekoa. Lan asko egin behar dira taldean, baina bakarrik egiteko lanak ere badaude, eta nik bide horri jarraitu diot. Halaxe esan nion Barandiarani, eta, bizkarrean kolpea emanda, horretan jarraitzeko esan zidan. Julio Caro Barojak hala esan zidan behin: «Taldea batean sartu izan bazina, ez zenuke egin duzun lanaren bostena ere eginda edukiko. Beti egongo zinen taldeko nagusitxoaren esanen menpe».

Zeu izango zinen, agian, taldeko burua.

Ez. Horretarako ez dut balio. Ez dut balio ez agintzeko ez obeditzeko. Entzuteko bai, horretarako balio dudala uste dut. **Hamaika gairi buruz idatzi izan duzu. Zein duzu maiteena?**

Zaila da horri erantzutea. Ijitoek, badakizu, esaten zuten: «Ttikiena maiteena, ttikiena maiteena». Eta nik esan dezaket: «Azkenengoa maiteena, azkenengoa maiteena». Ez dut esango orain zertaz den, baina lantxo bat egiten ari naiz. Eta gero nire lanen bildumaren beharazigarren alea atera nahi nuke.

Zure bilketa lanean oso gaiterik hasi zinen, 18-19 urterekin. Zer egiteko asmoa zenukan han eta hemen hartzen hasi zinen ohar haiekin?

Beno, nik beti izan dut irakurtzeko zaletasuna. Eta etxeko dendan ikusten nuen kandela handiak eta halakoak erabiltzeko ohitura galtzen ari zela. Galtzen ari zen hari buruz oharrrak hartzen hasi nintzen, eta beste gauza batzuei buruz ere bai. Eta Joxemiel Barandiaranekin harremana banuenez, erakutsi egin nizkion oharrok. Argitaratu egin behar nituela esan zidan hark. 1969an argitaratu nuen lehenabiziko liburua.

Gaur egun, ikertzaile gehiago dago etnografo lanak egiteko. Usadio zaharrei buruz informazioa emango duen jendea, baina, ba al dago?

Banaka batzuk bai. Baina nik idatzi ditudan gauza asko orain ezin dira idatzi, ez dagoelako nondik atera. Pertsona bat hiltzea, askotan, liburutegi oso bat erretzea baino okerragoa da, eta pertsona batzuek zekizkiten gauza asko, bizimodu bat, betikoz galdu dira eurekin. Gaur egungo aldaketak ez ziren ni ohar biltzen hasi nintzean. Orain, aldaketak erabatekoak dira.

Gaurkoari buruzko ikerketak egitea izango da, orduan, ikertzaile gazteen aukera?

Beno, gaur ere historia egiten ari gara eta atzoko eguna historia da. Hemendik urte gutxi barru, gauzak doazen moduan, gure egun hau historia izango da. Historia zaharra irudituko zaigu, gainera.

Tolosarra eta, nola ez, inauterizalea zaitugu. Gauza asko aldatu dira festa horietan ere. Onerako guztiak?

Aldaketak oso azkar gertatzen dira orain, eta oso sakonak dira, garai batean ez bezala. Hala eta guztiz ere, Inautea antzinako ohiturei gehien eusten dion jaia izango da, nire ustez:

▶ **TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

‘Zeuk idatzi’. Sartu gure webgunean, *Zeuk idatzi* atalean, eta ez galdu aukera Tolosaldeari eta Leitzaldeari buruzko zure berriak jakitera emateko.

txantxoak —galtzen ari den hitza hori, mozorrotutakoei izen emateko hemen beti erabili izan dena—, puska biltzea... Herri txikietan, behintzat, bai. Herri handietakoak gehiago aldatu dira, ikuskizun bihurtu dira, espaloian zutik-zutik jarri eta begira egoteko. Eta hemengo Inauteriak beti parte hartze-koak izan dira.

Txantxo janzen al zara oraindik?

Emaztea joan zenez geroz, bature ez naiz txantxotu.

Landu duzun beste gai bat: Olentzero. Badakit hamaika aldiz galdetu dizutela horri buruz, baina Olentzero toki guztietan ageri da egunotan. Daukan irudiari buruz zer esango zenuke?

Orain dela bi urte beste kazetari batek hementxe bertan galdetu zidan Errege magoak ala Olentzero, ea zein nahiago nuen. Nik ez nuen zalantzarik egin: Errege magoak. Olentzerori buruz asko idatzi dut. Mito bat da, oso maitea, Euskal Herrikoa, kantuak ere badauzkana. Baina, folklorea begiratzaren baduzu, Olentzero hemen beti izan da begi-gorria, tripa-handia, zahagi bat ardo edan duena, arlotea, ikazkina... Orain, kolpetik, aberastu egin zaigu. Aberastu, eta opariak ekartzen hasi da!

Nire ustez, Olentzeroren irudia metamorfoseatuta dago, pertsona irudia hartuta, baina garai batean enborrak pizten ziren Gabonetan. Etxeetan behoko sua izaten zen garai batean, neuk ezagutu nuen hori, eta Gabon gauean sutan jartzen zituzten enborrek Olentzero-enborra, subilario eta beste izen batzuk hartzen zituzten. Uste dut horiek pertsona irudia bai-

MOTZEAN ▶

Tolosa. Nire jaioterri maitea. **Txindoki.** Behin ere ez naiz igo. Ernion izan naiz hiruzpalau aldiz, baina ez naiz mendizaleegia. Nire aita defuntuak beti esaten zidan: «Aldaparik ez».

Zarautz. Etxea badaukat han, itsasoari begira, baina ez dut inoiz lorik egin bertan. Ez da hori nire zaletasuna. Nire zaletasuna autoa hartu eta edozein tokitara joatea da, oharrak hartzera eta.

Jai bat. Eguberri eguna eta San Joan eguna.

Etnografo ala historialari? Historiarekin ere aritzen naiz,

baina ni etnografoa naiz batez ere.

Bizitzan gehien erasan dizun pertsona. Gurasoak. Haiei diet zor naizen guztia.

Jose Mari Satrustegi. Asko maite nuen, gizon osoa zelako. Jenio txarrekoa ote zen esaten zuten batzuek, baina niretzako txarrik ez zuen izan behin ere. Ez zen asko bezala: asko hitz egin eta jaunbo baten aurrera joandakoan makurtzekoa. Hark ez zuen hori. Zuzena, hala zen. Eta lan asko egin zuen.

Julio Caro Baroja. Beste lagun handi bat. Euskarra maite zuen eta euskaraz egiten zuen,

abertzalea izan gabe. Itzeara joanda eta haren lanak leituta ezagutu genuen elkar. Bera Eusko Ikaskuntzako *R/IEV* aldizkariko zuzendaria zela, 13 urte eman nituen nik koordinatzaile. Doktoregoa ere hari zor diot. Tolerantea zen, baina bere eran.

Joxemiel Barandiaran. Caro Baroja baino aurrerakoagoa zen.

Koldo Mitxelena. Jakintsua eta lagun maitea.

Jorge Oteiza. Ezagutu dudan jeniorekin handiena. Mitxelenak ere bazuen ukitu bat, baina ez Oteizak adinakoa.

no lehenagokoak direla eta hortik pasatu direla pertsona irudia izatera. Eta, errepikatzen dut, nire iritzia da hori.

Mitoak eta kondairak zein neurritan ditugu beharrezko zientziaren eta teknologiaren garaiotan?

Pertsonak, berak uste gabe ere, mitoa sortzen du. Askotan, norberak sinesten du berak sortutako mitoa. Nik bi-hiru libururik baditut sorginkeriez-eta idatzita. Nik zenbait gauza esaten zuten pertsonekin hitz egin dut. «Bai, bai, halako ohean zegoen eta sorginak hozka egin zion. Eta hozkada hura nik ikusi dut», esan izan dit jende batek. Esaiouzu ezetz, ez duela ikusi!

Eta zerk bereizten du mitoa erlijiotik?

Beno! Erlijioa, sinesten duenarentzat, ez da mitoa. Fedea behar da.

Zu fededuna zara?

Ni, bai. Baina ez naiz oso ortodoxoa, ez, egia esan. Bizitza

osoan ezertan ez naiz izan ortodoxoa.

Zer ematen dizu erlijioak?

Zetoporik batere ez hemengo gauza onak egiteko. Gero, itxaropen bat ere bai. Beti. Askok esaten du: «Nik ez dut sinesten!». Baina gauza zailagoak sinesten dira hemen.

Batzuen ustez, teknologiak salbatuko gaitu gu. Beste batzuen ustez, deshumanizazioa ekarriko digu. Zer uste duzu zuz?

Aurrerapena ez da zuzenean joaten —gauza on batzuk sakrifikatzen ditu, eta horretaz jabetu egin behar dugu—, baina aurrerapena da, noski. Aurrerapenaren aurka ezin da egon bat.

Eta heriotzaren aurka?

Ezta ere. Niri emaztea joan zitzaidan, udan egin zituen hiru urte. Euskaraz nik baino hobeto egiten zuen; abestu, primeran; eta pianoa oso dotore jotzen zuen. Eta asko irteten ginen. Zarautzera ere orduan

gehiago joaten nintzen. Oteizarengana asko. Emaztearena, baina, horrela. Eta orain haren ahizpa daukat etxean, alzheimerak jota. Gurekin bizi den emakume kolonbiar batek zaintzen du. Begira leihotik hor gora [eskua luzatuta]. Ikusten al duzu etxe hori? Zoragarria da. Hor biziko nintzateke orain gauzak okertu izan ez balira. Eta orain ez dut txofertzen. Autoa ere hor daukat, parking batean sartuta. Beldurtu egiten naiz, beldurtu. Dena daukat eta ezer ez, badakizu zer den?

Zerk ematen dizu beldur handiena oraintxe bertan: hiltzeak ala burua galtzeak?

Hori urtarrilarena eta otsailarena bezala da: zer hilabete da txarrena? Nik beldurra diot minari. Handia. Nire emazteak mina izan zuen, handia; burua, ona oso.

Oso eszeptiko omen zaude azkenaldian.

Bai, baina gauza batzuetan, besteetan ez.

Zerekin zaude, bada, eszeptiko?

Politika giroarekin. Ez daukat ilusio berezirik. Politikari asko ez dira elkarri entzuteko gauza. Nik politikari lagunak izan ditut eta ditut, baina...

Hori ere etnografikoki aztertzeko gaia izan daiteke, ezta?

Bai. Beste batek egingo du... **Euskaltzale eta euskaltzain ohorezko ere bazaitugu. Nola ikusten duzu euskararen egoera?**

Hemen daukagun zatiketarekin, euskarak galtzen du, euskara ahulena delako. Zergatik? Frantsesa eta gaztelania indartsuago direlako. Euskarak atzera egin du. Askok daki euskaraz, baina gutxi entzuten da kalean, baita Tolosan ere. Zatiketa ideologikoak euskararen kontra jartzen du jende asko. Eta euskarak ez luke abertzaleen bazarririk izan behar, denena baizik. Jendea erakarri egin behar da, bildu. Hori ez da irainekin lortzen.

Abertzale/ez-abertzale, euskaldun/ez-euskaldun zatiketaz gain, abertzaleen artean ere bada zatiketarik.

Guk odolean daramagu zatiketa! Baten bat bakarrik geratzen denean, hura ere haserretu egingo da, bere burua paretaren kontra jota. Horregatik esaten nizun eszeptiko samarra naizela.

Gure arteko ezinikusiak hedabideetan-eta agertzen den bezain handiak ote dira, baina? Kalean giroa hain gaiztotuta sumatzen al duzu?

Ez, zorionez. Baina politikariak ere ematen duena baino askoz gutxiago haserretzen dira. Askotan, lagunak izaten dira beren artean. Liskartuta badaude batzuk, baina beste asko ez.

IZAERA


«Nik ez dut balio ez agintzeko ez obeditzeko. Entzuteko bai, horretarako balio dudala uste dut»

OLENTZERO

«Olentzero beti izan da zahagi bat ardo edan duen arlotea. Eta orain, kolpetik, aberastu egin da!»

EUSKARA

«Hemen daukagun zatiketarekin, euskarak galdu du, euskara ahulena delako»



AGENDA ▶

ANTZERKIA

Alegia. Zeru garratzak lana, Interruptus taldearekin. Bihar, 19:00etan, Gaztetxean. 18. urtemugan.

DEIALDIAK

Asteasu. Poxpolo, Mokolo eta konpainia pailazoan saioa. 17:30ean, kiroldegian. Guraso Eskolak antolatuta.
Asteasu. Herri kirolen jaialdi berezia Udal pilotalekuan, 22:30ean hasita: Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketako saioa batetik, eta harri-jasotze erakustaldia bestetik.

Tolosa. Laskorain Ikastolak urteroko Merkatu Txikia antolatuta du Kultur Etxean, Sahararen eta Boliviaren alde. Saharara bidaltzeko elikagaiak ere jasoko dituzte bertan. Gaur da azken eguna; 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara zabalik.

Tolosa. Eguberrietako estropada antolatuta du, bihar, Tolosaldeko Arraun Klubak, 11:30ean, Oria ibaian. Herritarrek animatzera joatera gonbidatu dituzte.

Tolosa. Errege Magoek La Jara Extremadurako etxea bisitatuko dute, bihar, 17:00etan. Txokolate jatea ere izango da.

Tolosa. Herritarren parte-hartze jardunaldiak hilaren 13an eta 14an, arau subsidiarioez. Parte hartzeko deitu 943 69 74 50 telefono zenbakira.

ERAKUSKETAK

Alegia. Juani Alkortaren margolanak. Hilaren 9ra arte ikusgai, Jubilatuen tabernan.

Tolosa. Manuel Lasarte bertsolari leitzarrari buruzko erakusketa. Hilaren 14a arte, Aranburu Jauregian.

Tolosa. Alejandro Tapiaren pinturak. Hilaren 28ra arte, Aranburu Jauregian.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Tolosa. Etxebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.

Leitza. Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Isiltasuna izan zen atzo nagusi Aurrera elkartearen. Izan ere, jokalariek kontzentrazioa beharrezko zuten xakean aritzeko. R. E.

Buruari eraginez

TOLOSA ▶ Sabino Etxeberria izan da XIX. Jose Antonio Intsaustiren omenezko Erregetako Xake Txapelketako irabazlea




XIX. Jose Antonio Intsaustiren oroimenezko Erregetako Xake Txapelketako irabazleak. R. E.

IÑIGO TERRADILLOS

Errege egunez urtero xake taulek, piezek eta jokalariek hartzen dute Aurrera kirol elkartearen ere hala gertatu da, atzo goizean jokatu baitzuten bertan Jose Antonio Intsaustiren omenezko XIX. Erregetako Xake Txapelketa. 13 parte-hartzaile izan ditu aurtengoa edizioak eta Sabino Etxeberria izan zen denetan onena.

Txapeldunaren atzetik Josu Mujika, Xabier Mujika eta Iñaki Etxeberria sailkatu ziren. Aipatu beharra dago lau jokalariek hauek pasa den urteko txapelketan ere saririk jaso zutela. Horien atzetik, 5. postuan Jabier Baroja sailkatu zen, Iñaki Azkue 6. postuan, Migelmari Baroja 7.ean, 8. postuan Cayetano Otaegi, David Moreau 9.ean, Andres Bustamante 10. postuan, Agustín Rekalde 11.ean, Iñigo Mujika 12. postuan, eta 13. sailkatua Daniel Perez izan zen.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Ioritz Agirretxe Arozena (Altsasu-Belauntza). Gaur 4 urte. Zorionak attona, amona eta guztion partetik.



URTE ASKOAN
Maddi Begiristain Ugaldé. Gaur 2 urte. Zorionak aita, ama eta etxebekoen partetik.

HITZA, zorion agurren
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, **tartea** ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzara: Araba etorbidea, 5 behega - **TOLOSA** Udalezko bulegoa - **LEITZA**
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!